

DR. JUSTO GARATE ARRIOLA (1900-1994)

Justo Garate, aspalditik urgazle genuena eta 1978ko otsailetik ohorezko euskaltzaina, aurtengo uztailaren 2an hil zen Mendoza hirian (Argentina). Bergaran jaio zen mende honen hasierarekin 1900. urteko abuztuaren 5ean. Medikua, Madrilen eta La Platan doktoratua, baina lehenago Freiburg, Paris, Heidelberg eta Berlinen medikuntzako espezialitateak osatua zen.

Egia esan, zuotarik nork ez zuen ezagutzen jakitun hura nik adina? Gutariko nori ez dio idatzi zenbait agiri eskatuz edo berak zituenak ziurtatzeko xehetasun eskariz? Azken urteotan, halaber, bere anaia Elias hartzen zuen ordezkarri gisa. Nik ere, nire ahalmenaren neurria laguntzen nion bere eskariei argibideak ematen. Zor nion, 1959. urtean Juan Antonio Mogeli buruzko lana egin nuenean beragandik jaso nuen laguntzaren ordainez.

Bai, Justo bera ere laguntzen zekiena zen eta guztiok badugu horren lekukorik. Adibidez, begira argitara berri den *Cancionero Vasco-P.Donostia*, VIII. liburukia, 1529. orrialdean "Papeles de Humboldt", non ikus daitekeen prusiarrak hemen bildu zituen kanta eta doinuak Berlingo bibliotekan begiztatu eta 1934. urtean Aita Donostiari nola aditzera eman zion. Horren ondoriozkoa dugu liburuki horretan datorren azken zatia, gure kulturaren aberasgarri.

Euskaraz ez zuen asko idatzi, baina bilduma ederra osatzeko adina bai, eta merezi luke hainbeste alor landu zituen gizon honen euskarazko liburu bat osatzeak, han-hemenka argitaratutako lanok bildurik. Hogeita bi urterekin hasi zen Bilboko *Euzkadin* idazten. Geroztik, *Eusko Deya*, *Gernika*, *Euskera* eta beste zenbaitetan argitaratu zituen euskarazko idazkiak, batzutan Elorregi, Eneko Mitxelena, Eneko Zilueta eta Txeru Arriola izenordeez. Zer esanik ere ez: euskaltzale uka ezina genuen gure gizon hau.

Jakina denez, medikuntzaz hainbat lan egin arren, inoiz ez zuen utzi euskal kulturaren alorrik. Hori gainera kontuan izanik bizitza berez gogorra gertatu zitzaioela. Hogeita hiru urterako lortu zuen mediku lizentziatura, eta ondotik Unibertsitatea eta bidaiak zituen gogoko. Mende honetako Euskal Unibertsitatearen sortzaileetariko genuen. Gerra zibilak erbesteraturik, lehendik hain zale zituen bidaiak, ahal bezala, erromes gisa ibiltzera beharturik aurkitu zen. Baina, nonahi eta beti, tinko. Gainera, bere eraginaren itzala utziaz igaro zen toki guztietan.

Bere ikasbidearen xehetasunez honako ohar hau egiteari beharrezko deritzot. 1917an Valladolid-eko Unibertsitatean hasi zituen medikuntzarako ikastaro nagusiak. 1921. urteko urtarrilean Basurtuko Ospitaleko Medikuntza Eskolan sartu zen. Handik urtebetera Basurtuk beka eskainiz Freiburg-era joan zen eta 1923an lizentziatu. Doktoradutza Madrilen 1927an eta berehala laguntzaile gisa Basurtura, 1933an bertako Me-

dikuntza Eskolan irakasle eta 1936an bertako kideekin Euskal Herriko Unibertsitatearen sortzaile Medizina Fakultatearekin.



Justo Garate

Espainiako Kotsuladuak 1989an liburu bat argitaratu zuen, *La inmigración española en Mendoza. Cuatro estudios monográficos* deritzana. Hor dator Jaime Correasek idatzitako kapitulu bat, "Justo Garate. El espíritu polémico" deritzana, bereziki 73-97. orrialdeak dira soil-soilik gure gizon honi eskainiak, bere bizitza eta lanak orokorki hartzen dituelarik. Hor bertan, 94-97 orrialdeetan dator bere lanen bibliografia. Baina bada beste liburu interesgarri bat, bere ikasle Roberto M. Aprá-k 1993an argitaratu zuen *Educación y medicina. Entre médicos y pacientes*. Alde batetik, XV. kapitulua, medikuaren esistentzialitateari buruzkoa eskaintzen dio J. Garate maisuari eta, bestetik, XVII.ean Garate eta Marañonek elkarri idatzi zizkioten gutunen berri ematen du, bi mediku ospetsuen bibliografiarekin bukatzeko. Ikus, 163-189. orrialdeak.

Beraz, guk euskal kulturaren ezagunagoa dugun Justo Garatek bere medikuntzako ofizioan ere badu ospea.

Eusko Ikaskuntzaren lehen alditik *RIEV* aldizkarian badu lanik aski, baina era berean aurkitu genitzake ikerlanak Euskal Herriaren Adiskideen *Boletín de la R.S.V.A.P.*en, Aranzadi Zientzi Elkartearen *Muniben*, *Príncipe de Viana* aldizkarian edo *Boletín Americano de Estudios Vascosen*.

Euskal gaien liburuak, berriz, huts egiteko arriskuarekin, honako hauek aipatuko nituzke: *Viaje a Navarra de Chaho* (1933), frantsesetik itzulpena edizio-kritiko gisa; *Guillermo de Humboldt. Estudios de sus trabajos sobre Vasconia* (1933); *Ensayos Euskarianos* (1935); *La época de Astarloa y Moguel* (1937); *Viajeros extranjeros en Vasconia* (1942); *Cultura biológica y arte de traducir* (1943); *Cuatro ensayos sobre España y América* de Guillermo de Humboldt, traducción y notas en colaboración con Miguel de Unamuno (1951); *El carlismo de los vascos* (1980). Horiez gainera, hainbat itzulpen, hitzaurre eta kritikaz beste zenbait liburu. Elkarlanean osaturik Euskaltzaindiak argitaratu zuen *Iparragirre* (1987) liburuan bertan ikerlanik luzeena zen berea, "Iparragirre en América" izenburuduna. Duela urtebete, ordea, bere azken liburua, *Un crítico en las quimbambas*. Bere lanen bibliografiarik zehatzena Jon Bilbaoren *Eusko bibliographiaren III eta IX. liburukietan 577-580. eta 402-404. orrialdeetan* (Añamendi argitaletxea, Donostia, 1973 eta 1975. urteetan), ondotik, jarraipenez *Eusko bibliographia*, II. liburukia (1976-1980), (Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1986). Azkenik, *Un crítico en las quimbambas*en osatuago aurkituko dugu 291-312. orrialdeetan.

Baina, bereziki, Justo Garate, maiz "Zuzen Garate", polemista bezala ere ez zen gizon txarra. Besteen hutsak salatzen bazekien ere, gehienetan bereak laster aitortzen zekiena zen. Bere jakintzaz ez zen oharkabea eta lehenik harro itxurazko gizona idurituko zitzaigun, baina berarekin harremanak izan zituen nornahi erraz ohartzen zen bere bihotz onaz eta umiltasunaz. Gainera, beti nornahiri mesede egiteko gertu. Antzinatek elkarren artean izan dugun harreman estua dut diodanaren lekuko.

Jakintza bideetan orotariko gaiez interesatu zen, bereziki XVIII. eta XIX. mendeetako ikerketaz, historiarako G. von Humboldt-enganetik hasi eta karlisten gerratetik Iparragirre arte bereziki. Ahantzi ezinezkoak Humboldt-i buruz egin zituenak, luze bezain sakonak, bizitzaz, bidaiez eta euskal lanez. Haiek izango zituen, *Ensayos Euskariarosekin* batera, bere gaztaroko lehen lanak. Ondorenez etorri ziren gainerakoak.

Langile bezala, zer esan? Bizi guztian eten gabe aritu zen, han eta hemen, hartaz eta honetaz. Medikuntzaz, biologia eta psikologiak berrehunen bat lan idatziak ditu eta beste hainbeste edo gehiago filologiak, etnografiak eta euskal historiak. Toponimiaz lanik ugari agertu zuen eta, beraietan etimologiako iritziak beti zuzenak izan ez bazituen ere, saio gogoangarriak dira. Edozein gai hartzen zuelarik ere, maisuki agertzen zen gehienetan. Bere intelektu ahalmenen adierazgarri hor dugu *Cultura biológica y arte de traducir*. Zernahitarik bada hor eta, niri behintzat, ordu atseginak eskaini dizkit, batez ere gizonaren dimentsioa eta adimenaren neurriak erakusten dizkigulako.

Ikertzaile paregabea. *Los colegios de las vizcainas y Vergara en el siglo XVIII* (1972) lana 1992. urtean Eusko Jaurlaritzak, lehendakariaren eskaintzaz, argitaratu zuen J. Ig. Telletxea Idigorasen gehigarri. Baina, halaber, bada beste alderdi guti ezagun bat Justo Garategan: hitzaurregilearena. Liburu askoren hitzaurregile. Nik lehenengoetarik ezagutu nuena Migel Pelay Orozko adiskidearen *El ritmo de la época*rena izango da noski. Liburua bera ederra bazen ere, hitzaurrea ez zen makala.

Ez nuke ausartegia izan nahi pertsoneri buruz iritziak ematen. Sokratek antzina zioenez, gauzek gizaki bakoitzagan era desberdinezko ikuspegiak dituzte; gure esaldiak dioen bezala, buru haina aburu; eta nekeza da Justo bezalako humanista bati buruz aburu zehatzak agertzea, hain zabala denez gizon honen kultura eta honen barnean landu zuen alorra.

Justok, bere polemiketan, etxekoekin zalapartarik aski atera bazuen ere, erbesteko zenbait kultur gizonekin izan zituenak nabarmenagoak ziren, gehienetan gure Herriaren izen onaren alde bere luma ezpatatatzat hartuz. Bere garaian “barapalo” ondo merezia eman zion Salvador Madariagari eta geroxeago Sánchez Albornozi. Jorge Luis Borges idazlea ere ez zen libratu ondo merezia zuen zigorretik. Borgesek uste bazuen euskaldunok soilik esnedunak (esneketariak) ginela, hemengoen “esnea” probatu beharra izan zuen “Zuzen Garate”ren eskutik. Sánchez Albornozek, ordea, Ameriko Castroren arabe zaletasuna onartzerik nahi ez, eta horren kontrako arrazoi bidez uste zuen erromantziak bakarrik zirela zibilizatuak, eta amaren semeak nonnahi sortzen zirela ikusi zuen “albornoz” ordez “tunikaz” behar zuen hark. Madariagari nonbait ahantzi zitzaion zumarrak ez duela frutatatzat madaririk ematen, bere jatorrizko lurreen behar bezala errotua denean, eta madarikatu hari adierazi zion gauzak zuzen nola ziren.

Izugarria benetan gure gizonaren kemena. Baina bere luma su bihurtzen zenean, berezko seta indartzen zitzaion gauzak bere neurritik atereaz. Biarnoko “convade” hitza Strabón-ek kantabriari buruzkoan erabili zuen ala ez, XVII. mendean Rochefort-engandik hasita era askotako iritziak barreiatu ziren; baina iritziak iritzi. Berez iluna zen gai horretan gogorregi sartu zen J. Caro Barojaren aurka Aranzadi Zientzia Elkarteak Telesforo Aranzadiri 1962an omenez eskaini zion *Munibe* zenbaki berezian. Ondoko urteetan ere setati jarraitu zuen agiri zehatzik eskaini ezinezko auzi hartan. Etnografo autoritate kendu nahi zion gai horietan zerbait egin dugunon aurrean, baina, hala ere, hutsegiterik bada edo ez bada, guretzat Caro Baroja izan da etnologia eremu horretan izan dugun maisu gorena. Baina, hala ere, XVIII eta XIX. go gaietan hain aditua zen J. Garatek aitortu zuen J. Caro Barojaren *La hora navarra del s. XVIII* liburu bikaina zela.

Antzera aritu zen K. Mitxelenarekin ere, hizkuntzalaritza gramatikaren maila soiletik ikusten zuela esanez. Hor ere badakigu Mitxelena dela gure historian izan den hizkuntzalaririk bikainena. Hortik ote zetorkion euskara batua onartu ezina? Justo eta biok elkarren artean idatzizko eztabaidarik aski izan genuen. Behin azaldu zidan 1968an Arantzazuko bileretan Mitxelenak eztabaida sutsu eta gogorak izan zituela Jose Miel Barandiaranekin, Elias Amezagak esan zionez. Erantzun erraza nuen, esanez, Arantzazuko bilera haietan Euskaltzaindiko idazkari nintzenez, edozeinen aurrean aitortu neza keela J.M. Barandiaran ez zela agertu Arantzazuko bilera haietara eta ezinezko zela horrelako eztabaidarik. Medikuz bezala, bere eztabaida horietan besteen diagnostiko psikikoa egiteko zaletasuna agertzen zekienez, ia ez zen ohartu Elias Amezagaz, zeren buruz elbarritua ez bazen, nire ustez, zentzu-oreka zalantzagarrria nabari zuelako.

Nornahik ditugu gure hutsegiteak, jakitunik handienak bereak dituen bezala. Nor zertan zein den hautatzea ez da gauza erraza, baina zentzuz aritu beharra dugu edonork alde emankorrek, positiboak, non dituen nabaritzeko, bestelako hutsak huskeria direlako. Eta Justo Garateren lan oparoa, medikuntzaz gainera, sakon bezain zabala izan da euskal kulturaren alorrean. Fruiturik aski eskaini zigulako izendatu zuen 1982. urtean Euskal Herriko Unibertsitateak *honoris causa*, lehenago guk ohorezko euskaltzain bezala. Eta 1991ko azaroaren 4an Errege Juan Carlos Lak *Cruz de Caballero de la Orden de Isabel la Católica* eskainiz ohoretu zuen gure gizon hau.

Justok bederatzi hizkuntza menperatzen zituen, baina ikastaro garaian Aingeru Iri-garai zenak euskaltzaleatasuna txertatu zionetik, hau zuen bihotzkoena. Gudak erbestaturik urte larriak igaro arren, bere emazte Itziarren laguntzarik ez zitzaion falta izan euskaldungoan arduratsu jarraitzeko eta seme-alabak euskaraz hezitzeko.

Igaz argitaratu zen bere azken liburuan hitz hunkigarriak eskaintzen ditu bukaeran familiarentzat eta herriminaz. Hara hemen bere esanak hitzez-hitz:

“Con Itziar, esposa y compañera de siempre, y en medio de mis hijos, desde esta Mendoza argentina, escribiendo esta especie de biografía, rememoro mi vida. Siento que mi corazón salta hacia mi tierra vasca, que seguramente ya no pisaré más, y deambulo por sus montes y valles; dialogo con sus gentes; cuestiono aspectos de su historia, su lengua y sus costumbres; anoto detalles que me parecen interesantes para un nuevo estudio; sueño con un país grande en medio de su pequeñez geográfica.

En Mendoza, mi ciudad de residencia, recuerdo con amor mi tierra de origen, Bergara. Me gustaría estar siempre presente en ambas ciudades y que ambas me puedan recordar como una persona que vivió preocupada por el destino humano y que todo lo que hizo lo realizó en pro de la humanidad.”

Guk nekez ahaztuko dugu bere bizitza guztian Berpizkunde garaiko humanista jakitunen erara etengabeko lanean aritu eta erbestean bere gorputza utzi zuen bergarra. Guk ere zer gutiago agur eta ohore-eskaintza bihotzez egitea baino?

Juan San Martin